

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GUARDIAKO UDALA

#### Udal lurzattia besterentzea

Guardiako Udalak bere jabetzakoa den soberazko lurzati bat besterentzea erabaki du. Hona hemen lurzatiaren deskribapena:

– landa lurzattia, Guardiako (Araba) jurisdikzioan kokatutako orubea, “San Cristobal” ize-neko aurkintza. Katastroak dioenez, 1.710,00 metro koadroko azalera du; otalur-bazkaleku erabilera du, eta, beraz, zatiezina da indarreko legeriaren arabera.

Mugak: iparraldean, jatorrizko finkaren gainerakoa (9 poligonoko 311 lurzattia); hegoaldean, bidea eta jatorrizko finkaren gainerakoa (9 poligonoko 311 lurzattia); ekialdean, 9 poligonoa, 468 lurzattia eta bidea; eta mendebaldean, jatorrizko finkaren gainerakoa (9 poligonoko 311 lurzattia).

Katastro erreferentzia: 311 lurzattia, B azpilurzattia, 9 poligonoa.

Espedientea jendaurrean jarri da hamabost egun baliodunez, ALHAOn eta udalaren iragarki taulan iragarkiak argitaratuta.

Guardia, 2019ko uztailaren 12a

*Alkate-lehendakaria*

**LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO**